

CRISTOBAL COLONEN ESPEDIZIOA

1492KO URRIAREN 12AN, CRISTOBAL COLON IZENeko ITSASGIZON BATEK ONTZIZ BIDAIATU ZUEN, ASIARA (INDIARA) JOATEKO BIDE BERRI BATEN BILA.

GAUR EGUN **AMERIKA** DEITZEN DUGUN LEKU BATERA IRITSI ZEN.

AMERIKA EZ ZEGOEN HUTSIK.

HAN **INDIGENAK** DEITZEN ZIREN PERTSONAK BIZI ZIREN. 3 ZIBILIZAZIOTAN BANATUTA ZEUDENAK: **INKAK, MAIAK ETA AZTEKAK.**

EUROPARREK USTE ZUTEN LEKU BERRI BAT AURKITU ZUTELA, BAINA EGIA ESAN, JADA BIZTANLEAK ZITUEN.

BIDAIAREN ONDOREN, **EUROPAR ASKO AMERIKAN GERATU ZIREN.** HORRI **KOLONIZAZIOA** DEITZEN DIOGU.

KOLONIZAZIOAK GAUZA BERRIAK EKARRI ZITUEN EUROPARA, BAINA ARAZO ASKO ETA SUFRIMENDU HANDIA ERE ERAGIN ZIEN BERTAN BIZI ZIREN ZIBILIZAZIOEI.

NOIZ GERTATU ZEN?

1493

1492

1494

AMERIKETARA IRITSI NAHI ZUTEN?

BAI

EZ

NORA IRITSI NAHI ZUTEN?

AFRIKARA

ASIARA

EUROPARA

AMERIKEA DESKUBRITU ZUTEN?

EZ

BAI

ZERGATIK?

BERTAN JENDEA BIZI ZELAKO

EZ ZELAKO INOR BIZI

NOLA ESATEN ZAIO ORDUAN?

DESKUBRITZEA, LEHENAK IZAN ZIRELAKO

KOLONIZATZEA, BERTAN JENDEA BIZI ZELAKO ETA BERTAN GELDITU ZIREN
EUROPARRAK.

KOLONIZAZIOAK ONDORIO POSITIBOAK BAKARRIK IZAN ZITUEN?

BAI

EZ

ZERGATIK?

EUROPARENTZAT ONA IZAN ZENA, AMERIKETAKO ZIBILILAZIOENTZAT EZ ZELAKO ONA IZAN. ZIBILILAZIOAK DESAGERTU ZIREN.

GUZTIEK IRABAZIAK IZAN ZITUZTEKO ETA ONDORIO TXARRIK EZ.